

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA, INTERIOR Y JUSTICIA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

POLÍTICAS SOCIALES

DERECHOS SOCIALES

FOMENTO

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL, ADMINISTRACIÓN LOCAL, Y MEDIO AMBIENTE

Nafarroako ekonomia % 2,8 hazi da azken hamabi hilabeteetan

Ayerdi kontseilariak hazkunde hori positiboki baloratu du, eta "datu horiek herritarren ongizatearen hobekuntza nabarmen bat adierazteko beharra dagoela" azaldu du

Jueves, 30 de julio de 2015

Nafarroako Barne Produktu Gordina % 2,8 hazi da 2015eko bigarren hiruhilekoan 2014ko aldi berarekin alderatuz, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako Hiruhileko Kontabilitateko datuen aurrerapenaren arabera.

Nafarroako Gobernuak datu hori positiboki baloratu du, nahiz eta Garapen Ekonomikorako kontseilari Manu Ayerdik adierazi duen "lan egiteko beharra dagoela datu horiek herritarren ongizatearen hobekuntza nabarmen bat adieraz dezaten".

Seigarren tasa positiboa da jarraian bi urte oso balio negatiboetan izan ondoren, eta aurtengo lehen hiruhilekoko bano puntu erdi bat gehiago. Hiruhilekoen arteko terminoetan, Nafarroako BPGd-aren aldaketa-tasa positiboa da zortzigarren hiruhilekoz jarraian, % 1, aurreko aldian baino lau hamarren gehiago.

Alde horretatik, Ayerdik iritzi duenez, BPGd-aren bilakaera positiboa izan arren, "bide luzea geratzen da oraindik krisiaren aurreko enplegu-maila kuantitatibo eta kualitatiboak berreskuratzeko. Datozen hiruhilekoen helburua, elkarrekintza hori sustatzea izango da eta, hala, ekoizpen-enplegua areagotuko da, eta Nafarroa guztirako ongizate-maila handiagoa emango.

Espainiako ekonomiari dagokionez, aipagarria da hazkunde-tasetan nolabaiteko bateratzea gertatzen ari dela. Espainiako Bankuak kalkulatu duenez, ekonomia espainiarra % 3,1 hazi zen urte arteko balioetan, eta % 1 hiruhilekoen arteko balioetan. Hau da, 3 hamarren gehiagoko erritmoan egin zuen urte arteko balioetan, baina Nafarroako erritmo berean hiruhilekoen arteko tasan; 2015eko lehen hiruhilekoan, berriz, Espainiako bi tasa horiek Nafarroakoak gainditzen zituzten 4 eta 3 hamarrenetan, hurrenez hurren.

2015eko bigarren hiruhilekoaren hazkundera industria-jardueran



Nafarroako ekonomia % 2,8 hazi da azken urtean.

izandako bultzadagatik azaldu daiteke, alde batetik, eta eraikuntzako adarretan ikusitako susperraldiagatik, bestetik. Eskariaren aldetik, kanpoko eskarian izandako aurrerapena nabarmendu behar da, esportazioetan izandako dinamismo handiagoari esker, bereziki.

Lehen hiruhilekoan gertatutakoarekin alderatuz gertatutako bizkortzeak, hiruhilekoen balioetan nahiz urte artekoetan, susperraldia indarrez aurrera egiten ari direla berresten du. Bilakaera positibo horrek, ordea, arrisku eta zalantzak sortzen ditu etorkizun hurbilean, nazioarteko egoeragatik, batez ere: Txinako hazkundea gelditzeko aukera bertan dituzten finantza-arazoengatik, eta Greziako krisialdia.